



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

3. Ordenantza Fiskala Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga

Ordenanza Fiscal nº 3 Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica

I. XEDAPEN OROKORRA

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arauketu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauan eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, Ermuko udalerrian Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ordainarazpena arauketu da, ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauan eta honako zerga ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

II. IZAERA ETA ZERGA-EGITATEA

2. ARTIKULUA

1. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga zuzeneko zerga da. Bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna kargatzen du, ibilgailuen mota eta kategoria edozein direlarik.

2. Zirkulaziorako gai den ibilgailutzat joko da erregistro publiko egokietan matrikulatua izan dena, berauetan baja ematen ez zaion bitartean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo matrikula dutenak ere zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira.

3. Ondokoak ez daude zerga honen pean:

a) Modeloaren antzintasunagatik erregistroetan baja emandako ibilgailuak, baldin eta, beraientzat bakarrik antolatutako erakusketa, lehiaketa edo lasterketak direla eta, zirkulatzeko baimena ahal bazaie salbuespen gisa.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek daramatzaten atoi eta erdiatoiak, baldin eta horien zama erabilgarria 750 kg-tik gorakoa ez bada.

III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

3. ARTIKULUA

I. DISPOSICIÓN GENERAL

ARTÍCULO 1

De conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, y en la Norma Foral 7/1989, de 30 de junio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, se regula en el municipio de Ermua la exacción del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, con arreglo a lo dispuesto en la Norma Foral 7/1989, de 30 de junio, y en la presente Ordenanza Fiscal.

II. NATURALEZA Y HECHO IMPONIBLE

ARTÍCULO 2

1. El Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica es un tributo directo que grava la titularidad de los vehículos de tracción mecánica, aptos para circular por las vías públicas, cualesquiera que sean su clase y categoría.

2. Se considera vehículo apto para la circulación el que hubiere sido matriculado en los registros públicos correspondientes y mientras no haya causado baja en los mismos. A los efectos de este impuesto también se considerarán aptos los vehículos provistos de permisos temporales y matrícula turística.

3. No están sujetos a este impuesto:

a) Los vehículos que habiendo sido dados de baja en los registros por antigüedad de su modelo, puedan ser autorizados para circular excepcionalmente con ocasión de exhibiciones, certámenes o carreras limitadas a los de esta naturaleza.

b) Los remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica cuya carga útil no sea superior a 750 kg.

III. EXENCIONES Y BONIFICACIONES

ARTÍCULO 3

1. Ondokoak zergatik salbuetsita daude:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Lurralde Historikoaren eta toki erakundeen ibilgailu ofizialak, defentsarako edo herriarren segurtasunerako erabiltzen badira.

b) Ordezkaritza diplomatiko, kontsul-bulego, agente diplomatiko eta karrerako funtzionario kontsular kreditaziodunen ibilgailuak, baldin eta dena-delako ordezkaritza diplomatikoa daukan herrialdeko hiritarrek erabiltzen badituzte eta kanpoaldean identifikazio-ezaugarria jartzen bazaie, eta elkarrekotasunaren baldintzapean, norainokoari eta graduari dagokienez.

Halaber, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta diplomazi estatutua duten beraien funtzionario edo kideenak.

c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun-laguntzako ibilgailuak, eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.

e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak.

Halaber, salbuetsita daude pertsona urrituen izenean matrikulatuta egonik, beraiek bakarrik erabiltzeko diren 14 zaldi fiskal baino gutxiagoko ibilgailuak. Salbuespena baldintza horiek berdin dirauten bitartean aplikatuko da, bai urrituek gidatutako ibilgailuen kasuan nola horiek erabiltzeko ibilgailuak direnean.

Nahiz eta ibilgailu bar baino gehiago eduki, idatzi-zati honetan jasotzen diren salbuespenak ibilgailu baten kasuan bakarrik aplikatuko zaizkie subjeto pasibo onuradunei.

1. Estarán exentos del impuesto:

a) Los vehículos oficiales del Estado, Comunidad Autónoma del País Vasco, Territorio Histórico y de Entidades Locales, adscritos a la defensa o a la seguridad ciudadana.

b) Los vehículos de representaciones diplomáticas, oficinas consulares, agentes diplomáticos y funcionarios consulares de carrera acreditados, que sean súbditos de los respectivos países, externamente identificados y a condición de reciprocidad en su extensión y grado.

Asimismo, los vehículos de los Organismos internacionales con sede u oficina en el Estado Español y de sus funcionarios o miembros con estatuto diplomático.

c) Los vehículos respecto de los cuales así se derive de lo dispuesto en tratados o convenios internacionales.

d) Las ambulancias y demás vehículos directamente destinados a la asistencia sanitaria o al traslado de heridos o enfermos.

e) Los vehículos para personas de movilidad reducida a que se refiere la letra A del anexo II del Reglamento General de Vehículos, aprobado por el Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre, matriculados a nombre de personas con discapacidad.

Asimismo, están exentos los vehículos de menos de 14 caballos fiscales, matriculados a nombre de personas con discapacidad para su uso exclusivo. Esta exención se aplicará en tanto se mantengan dichas circunstancias, tanto a los vehículos conducidos por personas con discapacidad como a los destinados a su transporte.

Las exenciones previstas en este apartado no resultarán aplicables a los sujetos pasivos beneficiarios de las mismas por más de un vehículo simultáneamente.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

3. Ordenantza Fiskala Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga

Ordenanza Fiscal nº 3 Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica

Letra honetan ezarritakoa aplikatzerakoan, urritasuna duten pertsonatzat ondorengoak hartuko dira:

a) 100eko 33 edo hortik gorako eta 100eko 65etik beherako urritasuna aitortuta daukaten pertsonak, halakotzat ondorengoak hartuz: urritasun-maila aitortu, adierazi edo kalifikatzeko prozedura arautzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskinean azaltzen den baremoko A, B edo C letretan deskribatutako egoera baten daudenak edo baremo horretako D, E, f, G edo H letretan 7 edo puntu gehiago lortzen dutenak.

b) 100eko 65 edo hortik gorako urritasun-maila duten pertsonak.

Honakoaren a) eta b) letretan zehaztutako pertsonen, aipaturiko Erret Dekretuaren III. Eranskinean azaltzen den baremoan A letrarekin kalifikatutako mugikortasun murriztuko gabealdian daudenean, ez zaie 14 zaldi fiskaleko muga aplikatuko, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiarekin erabiltzeko egokituta badago.

Hemen ezarritako salbuespenak arautuak dira eta erreguzko izaera dute. Salbuespenok udal organo eskudunak espresuki emandako administrazio-egintza bidez emango zaizkie beharrezko baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek, beraiek eskatu ondoren. Eskatzaileak ondorengodatuak jaso beharko ditu bere eskabidean: ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta beharrianaren zergatia, honako dokumentuekin batera:

- Zirkulazio-baimena.

- Minusbaliotasuna egiaztatzen duen agiria, Bizkaio Foru Aldundiko organo eskudunak emandakoa; ez da nahikoa izango minusbaliotasunak baloratzeko taldeek egindako irizpen teknikoa aurkeztea.

- Ibilgailua minusbaliotuaren erabilerarako

A efectos de los dispuesto en esta letra, se considerarán personas con discapacidad las siguientes:

a) Aquellas personas que tengan reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100 que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tales las incluidas en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B o C del baremo que figura como Anexo III del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración o calificación de grado de discapacidad o que obtengan 7 o más puntos en las letras D, E, F, G o H del citado baremo.

b) Aquellas personas con un grado de discapacidad igual o superior al 65 por 100.

A las personas incluidas en las letras a') y b') anteriores que se encuentren en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A en el baremo que figura como Anexo III del mencionado Real Decreto 1971/1999, no les será de aplicación el límite de 14 caballos fiscales, siempre que el vehículo se encuentre adaptado para el uso con silla de ruedas.

Las exenciones aquí previstas son de naturaleza reglada y tendrán carácter rogado, debiendo ser concedidas mediante acto administrativo expreso, dictado por el órgano municipal competente, a los sujetos pasivos que reúnan las condiciones requeridas y previa solicitud de éstos, en la que indicarán las características de su vehículo, su matrícula y la causa del beneficio, y a la que acompañarán los siguientes documentos:

- Permiso de circulación.

- Certificado de la minusvalía emitido por el órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia, o de cualquier otra Entidad Pública con capacidad legal para su emisión, no siendo título suficiente el dictamen técnico-facultativo emitido por los equipos de valoración correspondientes.

- Declaración jurada de que el vehículo va

bakarrik izango dela adierazten duen zinpeko aitorpena.

Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztatzeko agiria emango zaio interesatuari.

Oro har, salbuespena emanez gero, eskatu den urtearen ondoko ekitaldian izango ditu ondorioak; ez du atzeraeraginik. Hala ere, zergaren errolda behin betiko onetsi aurretik eskatzen bada zerga-onura, ezinbestekoa izango da zerga-zorra sortu den egunean aplikatzeko betekizunak betetzea.

f) Hiriko garraio publikorako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiago dituztenak, gidaria barne.

g) Nekazaritzako Ikuskapenaren Txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.

h) Unibertsitate publikoei atxikitako ibilgailuak.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin behar dute, eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoa azaldu behar dituzte. Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztatzeko agiria emango zaio interesatuari.

2. Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren kuota %4ko hobaria egingo zaie aldiari behingo ordainagiria zergaren zorrazpen-eguna (urtarrilaren 1a) baino lehen ordaintzeko finantza-erakunde baten helbideratuta daukatenei.

Edozein arrazoiengatik kobratzeko garaian ordainagiria itzuliko balitz, galdu egingo litzake bonifikazioa eskuratzeko eskubidea, eta zergaren zenbateko osorik ordaindu beharko litzake.

a estar destinado exclusivamente a uso de la persona con discapacidad.

Declarada ésta por la Administración Municipal, se expedirá un documento que acredite su concesión.

Con carácter general, el efecto de la concesión de exenciones comienza a partir del ejercicio siguiente a la fecha de solicitud y no pueden tener carácter retroactivo. No obstante, cuando el beneficio fiscal se solicite antes de la aprobación definitiva del padrón del Impuesto, se concederá si en la fecha de devengo del tributo concurren los requisitos exigidos para su disfrute.

f) Los autobuses, microbuses y demás vehículos destinados o adscritos al servicio de transporte público urbano, siempre que tengan una capacidad que exceda de nueve plazas, incluida la del conductor.

g) Los tractores, remolques, semirremolques y maquinaria provistos de la Cartilla de Inspección Agrícola.

h) Los vehículos adscritos a universidades públicas.

Para poder gozar de esta exención los interesados deberán instar su concesión indicando las características del vehículo, su matrícula y causa del beneficio. Declarada ésta por la Administración Municipal se expedirá un documento que acredite su concesión.

2. Gozarán de una bonificación del 4% en la cuota del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica, quienes tengan domiciliado su recibo de vencimiento periódico en una entidad financiera y siempre con anterioridad al inicio del devengo del impuesto (1 de enero).

Si por cualquier motivo durante el periodo de cobro se procediera a la devolución del recibo, quedará anulado el derecho a practicarle la bonificación, debiendo ser abonado el importe íntegro del impuesto



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

3. Ordenantza Fiskala Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga

Ordenanza Fiscal nº 3 Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica

3. Ibilgailu Historikoen Araudian zehaztutakoarekin bat, historikotzat katalogatutako ibilgailuek trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren kuotaren % 100eko hobaria izango dute, baldin eta probintziako trafiko-buruzagitzako ibilgailu historikoen erregistroan ageri badira.

4. Guztiz elektrikoak diren ibilgailuek eta soil-soilik eguzki-energiar aritzen direnek trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuotaren % 75eko hobaria izango dute, matrikulatu eta lehenengo bost urteetan.

5. Ibilgailu hibridoek (motor elektriko-gasolinazkoa, elektriko-diesela, elektriko-gasezkoa) trakzio mekanikoko ibilgailuen kuotaren % 60eko hobaria izango dute, matrikulatu eta lehenengo bost urteetan.

6. Ibilgailua matrikulatu eta lehenengo bost urteetan trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren kuotaren %50eko hobaria aplikatuko zaie gasolina-glp bidez bultzatutako ibilgailuei.

Hobariok 15,99 zaldi fiskalak gainditzen ez dituzten turismo-ibilgailuei aplikatuko zaizkie.

Hobari-eskaerak borondatez ordaintzeko epean aurkeztu beharko dira Udaletxean, edota borondatezko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean. Hobari-eskaerari zirkulazio-baimena erantsi beharko zaio, eta ibilgailu historikoen kasuan Trafikoko Probintziako Buruzagitzaren ziurtagiria.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

4. ARTIKULUA

Zerga honen subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan ageri diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, zirkulazio baimenean ibilgailua

3. Gozarán de una bonificación del 100% en la cuota del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica los vehículos catalogados como históricos de acuerdo con lo establecido en el Reglamento de Vehículos Históricos vigente, siempre que figuren así incluidos en el registro de Vehículos Históricos de la Jefatura Provincial de Tráfico

4. Gozarán de una bonificación del 75% en la cuota del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica, durante los 5 primeros años desde la fecha de matriculación, los vehículos totalmente eléctricos y los vehículos impulsados exclusivamente por energía solar

5. Gozarán de una bonificación del 60% en la cuota del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica durante los 5 primeros años desde la fecha de matriculación, los vehículos híbridos (motor eléctrico-gasolina, eléctrico-diesel eléctrico-gas)

6. Gozaran de una bonificación del 50% de la cuota del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica, durante los cinco primeros años desde la fecha de matriculación los vehículos impulsados por motores gasolina-glp

Estas bonificaciones se aplicarán para aquellos vehículos que no superen los 15,99 caballos fiscales

Las solicitudes de bonificación deberán ser presentadas en el Ayuntamiento durante el periodo voluntario de pago o en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente de la finalización de este periodo acompañada del permiso de circulación y en su caso certificado de la Jefatura Provincial de Tráfico para los vehículos históricos.

IV. SUJETOS PASIVOS

ARTÍCULO 4

Son sujetos pasivos de este impuesto las personas físicas o jurídicas y las Entidades a que se refiere el artículo 34 de la Norma Foral General Tributaria, a cuyo nombre conste el

beraien izenean agertuz gero.

V. KUOTA

5. ARTIKULUA

1. Tarifen taula honen arabera eskatuko da zerga:

vehículo en el permiso de circulación.

V. CUOTA

ARTÍCULO 5

1. El impuesto se exigirá con arreglo al siguiente cuadro de tarifas:

POTENTZIA ETA MOTA	EUROS EUROAK	POTENCIA Y CLASE
A) TURISMOAK 8 Zp fiskaletik beherakoak 8 Zp fiskaletik 11,99 Zp.ra artekoak 12 Zp fiskal baino gehiagotik 13,99 Zp.ra artekoak 14 Zp fiskal baino gehiagotik 15,99 Zp.ra artekoak 16 Zp fiskal baino gehiagotik 19,99 Zp.ra artekoak 20 Zp fiskaletik gorakoak	32,75 88,65 156,45 188,60 232,80 293,60	A) TURISMOS De menos de 8 c. fiscales De 8 c. hasta 11,99 c. fiscales De 12 hasta 13,99 c. fiscales De 14 hasta 15,99 c. fiscales De 16 hasta 19,99 c. fiscales De 20 c. fiscales en adelante
B) AUTOBUSAK 21 leku baino gutxiago dituztenak 21 eta 50 lekura bitartean dituztenak 50 leku baino gehiago dituztenak	216,20 307,90 384,85	B) AUTOBUSES De menos de 21 plazas De 21 a 50 plazas De más de 50 plazas
C) KAMIOIAK 1.000 kg z.e.tik beherakoak 1.000 kg z.e.tik 2.999 kg.ra artekoak 3.000 kg z.e.tik 9.999 kg.ra artekoak 9.999 kg z.e.tik gorakoak	109,75 216,20 307,90 384,85	C) CAMIONES De menos de 1.000 kg. de carga útil De 1.000 a 2.999 kg. de carga útil De 3.000 a 9.999 kg. de c. útil De más de 9.999 kg. de carga útil
D) TRAKTOREAK 16 Zp fiskal baino gutxiagokoak 16 Zp fiskaletik 25 Zp.ra artekoak 25 Zp fiskal baino gutxiagokoak	45,85 72,10 216,20	D) TRACTORES De menos de 16 c. fiscales De 16 c. a 25 c. fiscales De más de 25 c. fiscales
E) ATOIAK ETA ERDIATOIAK 1.000 kg z.e. baino gutxiagokoak 1.000 kg z.e.tik 2.999 kg.ra artekoak 2.999 kg z.e.tik gorakoak	45,85 72,10 216,20	E) REMOLQUES Y SEMIRREMOLQUES De menos de 1.000 kg. de carga útil De 1.000 a 2.999 kg. de carga útil De más de 2.999 kg. de carga útil
F) BESTELAKO IBILGAILUAK Ziklomotoreak	11,50	F) OTROS VEHÍCULOS Ciclomotores



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

3. Ordenantza Fiskala Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga

Ordenanza Fiscal nº 3 Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica

POTENTZIA ETA MOTA	EUROS EUROAK	POTENCIA Y CLASE
125 cc.ra arteko motozikletak	11,50	Motocicletas hasta 125 cc.
125 cc. Baino gehiagotik 250 cc.ra arteko motozikletak	19,70	Motocicletas de más de 125 hasta 250 cc.
250 cc. Baino gehiagotik 500 cc.ra	39,30	Motocicletas de más de 250 hasta 500 cc.
500 cc. Baino gehiagotik 1.000 cc.ra arteko motozikletak	78,60	Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 cc.
1.000 cc.tik gorako motozikletak	157,20	Motocicletas de más de 1.000 cc.

2. Kuoten taula Bizkaiko Lurralde Historikoaren Arrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren bitartez aldarazi ahal izango da.

3. Ibilgailu mota zehazteko, arau bidez ezartzen denari jaramon egingo zaio, eta gainera kontuan hartuko dira ondoko arauak:

a) Furgonetatzat ondokoak joko dira: pertsonak eta gauzak batera garraiatu ahal izateko moldatutako turismo-ibilgailuak, zenbait eserleku eta kristal kendu zaizkienak, ateen neurriak edota kokaera aldatu, eta bestelako aldaketak egin zaizkienak, baina jatorrizko ibilgailuaren modeloaren ezaugarriak funtsean aldatu gabe. Furgonetengatik turismoak balira bezala ordainduko da zerga, euren zerga-potentziaren arabera, ondoko kasuetan izan ezik:

1go. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago, gidaria barne, garraiatzeko gaiturik badago, autobus modura ordainduko du zerga.

2gn. Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badu, kamioi modura ordainduko du zerga.

b) Zerga honen ondoreetarako, motogurdiak motozikletatzat joko dira, eta, beraz, euren zilindrajearen edukieraren arabera ordainduko da zerga.

c) Ibilgailu artikulatuak direnean, zerga aldi berean eta bereiz ordainduko da arraste-indarra duen ibilgailuagatik eta herrestan daramatzan atoi eta erdiatoiengatik.

2. El cuadro de cuotas podrá ser modificado mediante la Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

3. Para la determinación de la clase de vehículo se atenderá a lo que reglamentariamente se determine, teniendo en cuenta, además, las siguientes reglas:

a) Se entenderá por furgoneta el resultado de adaptar un vehículo de turismo a transporte mixto de personas y cosas mediante la supresión de asientos y cristales, alteración del tamaño o disposición de las puertas u otras alteraciones que no modifiquen esencialmente el modelo del que se deriva. Las furgonetas tributarán como turismo, de acuerdo con su potencia fiscal, salvo en los siguientes casos:

1º. Si el vehículo estuviese habilitado para el transporte de más de nueve personas, incluida la persona conductora, tributará como autobús.

2º. Si el vehículo estuviese autorizado para transportar más de 525 kilogramos de carga útil tributará como camión.

b) Los motocarros tendrán la consideración, a los efectos de este impuesto, de motocicletas y, por tanto, tributarán por la capacidad de su cilindrada.

c) En el caso de los vehículos articulados tributarán simultáneamente y por separado el que lleve la potencia de arrastre, los remolques y semirremolques arrastrados.

d) Euren edukiera dela-eta matrikulatu beharrik ez duten ziklomotor, atoi eta erdiatoiak zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira Industria Ordezkaritzak horren ziurtagiria ematen duenetik, edo ibilgailua zirkulatzen hasten denetik, hala denean.

e) Makina autopropultsatuentatik, alegia, trakzio mekanikoko beste ibilgailu batek gainean edo herrestan eraman gabe herri bidetik berez ibil daitezkeen makinengatik, traktoreei dagozkien tarifen arabera ordainduko da zerga.

f) Zerga honen ondorioetarako auto-karabanez turismoak bezala ordainduko dute.

VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

6. ARTIKULUA

1. Zergaldia egutegiko urtea izango da, ibilgailuak lehenengoz eskuratzen direnean edo baja ematen zaienean izan ezik. Horrelakoetan, zergaldia eskuraketaren egunean hasiko da, edo Trafiko Burutza ibilgailuari baja ematen zaion egunean amaituko da, hurrenez hurren.

2. Zergaren sortzapena zergaldiaren lehen egunean izango da.

3. Ibilgailua lehen aldiz eskuratzen denean edo behin betiko baja ematen zaionean, zerga-kuotaren zenbatekoa hilabete naturaletan banatuko da, alta edo baja ematen den hilabetea barne.

Halaber, kuota era berdinean haibanatuko da ibilgailua aldi baterako baja emanda badago, lapurtu edo ebatsi dutelako; hori guztia aldi baterako baja dagokion erregistro publikoan jasotzen den unetik hasita.

VII. KUDEAKETA

7. ARTIKULUA

d) En el caso de los ciclomotores, remolques y semirremolques, que por su capacidad no vengán obligados a ser matriculados, se considerarán como aptos para la circulación desde el momento que se haya expedido la certificación correspondiente por la Delegación de Industria, o, en su caso, cuando realmente estén en circulación.

e) Las máquinas autopropulsadas que puedan circular por las vías públicas sin ser transportadas o arrastradas por otros vehículos de tracción mecánica tributarán por las tarifas correspondientes a los tractores.

f) A los efectos de este impuesto, las Autocaravanas tributarán como turismo.

VI. PERÍODO IMPOSITIVO Y DEVENGO

ARTÍCULO 6

1. El período impositivo coincide con el año natural, salvo en el caso de primera adquisición o baja de los vehículos. En estos casos el período impositivo comenzará el día en que se produzca dicha adquisición, o terminará el día en que se produzca la baja en la Jefatura de Tráfico, respectivamente.

2. El impuesto se devenga el primer día del período impositivo.

3. El importe de la cuota del Impuesto se prorrateará por meses naturales en los casos de primera adquisición o baja definitiva del vehículo, incluido el que corresponda a la fecha en que se produzca el alta o baja.

También procederá el prorrateo de la cuota en los mismos términos en los supuestos de baja temporal por sustracción o robo de vehículos, y ello desde el momento en que se produzca dicha baja temporal en el Registro público correspondiente.

VII. GESTIÓN

ARTÍCULO 7



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

3. Ordenanza Fiskala Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga

Ordenanza Fiscal nº 3 Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitza zein udalerritan dagoen, hango udalaren eginkizuna izango da ibilgailu horren zerga kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta bai zerga-kudeaketan agindutako egintzak berrikustea ere.

8. ARTIKULUA

Udalak zerga hau autoliquidazio araubidean ordaintzeko eskatu ahal izango du.

9. ARTIKULUA

Udal administrazioak luzatutako agiria izango da ordainketa egin izanaren frogagarria.

Ibilgailuei baja ematen zaienean, dagokien zati proportzionala ibilgailuaren titularrak eskaera aurkeztean duenean itzuliko da, zerga helbideratuta dagoenean salbu, kasu horretan itzulketa ofizioz egingo baita, eta betiere, erakundearekin dituen betebeharrak guztiak beteta baditu. Gero, itzulketen zerrenda egingo da hileroraino, eta dekretuz onartuko da, kontabilitatean jasotzeko.

10. ARTIKULUA

Zerga Kudeaketa Zerga-bilketa eta Ikuskaritzako Ordenantzan jasotzen den kobrantza-egutegiaren arabera ordainduko da, hurrengo artikuluan ageri diren kasuetan izan ezik, kasu horietan hurrengo artikuluan xedatutakoa beteko baita.

11. ARTIKULUA

1. Trafiko Burutzari ibilgailua matrikulatzeko, zirkulaziorako gaitasunaren ziurtagiria emateko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko eskatzen diotenek, aldez aurretik zerga ordainduta dutela frogatu behar dute. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago ezer frogatu beharrik.

2. Gauza bera egin beharko dute

La gestión, liquidación, inspección y recaudación, así como la revisión de los actos dictados en vía de gestión tributaria corresponde al Ayuntamiento del domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo.

ARTÍCULO 8

El Ayuntamiento podrá exigir este impuesto en régimen de autoliquidación.

ARTÍCULO 9

Será instrumento acreditativo del pago del impuesto el recibo expedido por la administración municipal.

La devolución de la parte proporcional que corresponda en los casos de bajas de vehículos se realizará en el momento de la presentación de la solicitud por parte de la persona titular del mismo, salvo que el impuesto este domiciliado, en cuyo caso la devolución se tramitará de oficio y siempre que se encuentre al corriente de sus obligaciones con la entidad. Posteriormente, se confeccionará un listado mensual de las devoluciones efectuadas que será aprobado por Decreto para su anotación contable.

ARTÍCULO 10

El pago del impuesto se efectuará según las fechas establecidas en el calendario de pagos de la Ordenanza de Gestión, Recaudación e Inspección., salvo que se trate de los supuestos contemplados en el artículo siguiente, en los que se estará a lo que en él se dispone.

ARTÍCULO 11

1. Quienes soliciten ante la Jefatura de Tráfico la matriculación, la certificación de aptitud para circular o la baja definitiva de un vehículo, deberán acreditar, previamente, el pago del impuesto. Se exceptúa de la referida obligación de acreditación el supuesto de las bajas definitivas de vehículos con quince o más años de antigüedad.

2. A la misma obligación estarán sujetas

ibilgailuen titularrek Trafiko Burutzari ibilgailuaren eraldaketaren berri ematen diotenean, baldin eta eraldaketak zerga honen ondoreetarako ibilgailuak duen kalifikazioa aldarazten badu, eta bai ibilgailuaren zirkulazio baimena eskualdatzen dutenean edo bertan ageri den egoitza aldatzen dutenean ere.

3. Trafiko Burutzek ez dute ibilgailuen baja edo eskualdaketei buruzko espedienterik tramitatuko aldez aurretik zerga hau ordainduta dagoela frogatzen ez bazaie.

12. ARTIKULUA

Matrikulazio berrietan, edo ibilgailuari egindako aldagetek zerga ondoreetarako kalifikazioa aldarazten dutenean, interesatuek ondoko agiriak aurkeztu behar dizkiote udal administrazioari, zergaren matrikulari eransteke, matrikulazioa edo aldaketa egiten den egunetik zenbatu beharreko 30 eguneko epean:

- a) Zirkulazio baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.
- c) NAN edo IFZ

13. ARTIKULUA

1. Zergaren errolda erabiliko da zerga kudeatzeko. Errolda urtero eratuko da, eta bertan agerraraziko dira zerga ordaindu beharra duten subjektu pasiboen izenak eta zerga-egoitzak, eta bai zerga-oinarriak eta emaitzako kuotak ere.

2. Errolda, behin Udalaren Gobernu Batzordeak onetsi eta gero, jendaurrean azalduko da hamabost egunez, zergadunek hura aztertu ahal izan dezaten eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ahal izan ditzaten.

las personas titulares de los vehículos cuando comuniquen a la Jefatura de Tráfico la reforma de los mismos, siempre que altere su clasificación a efectos de este impuesto, así como también en los casos de transferencia y de cambio de domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo.

3. Las Jefaturas de Tráfico no tramitarán expedientes de baja o transferencia de vehículos si no se acredita previamente el pago del impuesto.

ARTÍCULO 12

En caso de nueva matriculación o de modificaciones en el vehículo que alteren su clasificación a efectos tributarios, las personas interesadas deberán presentar en la administración municipal, con objeto de su inclusión en la matrícula del impuesto, dentro del plazo de 30 días hábiles desde la matriculación o modificación, los siguientes documentos:

- a) Permiso de circulación.
- b) Certificado de características técnicas.
- c) D.N.I. o C.I.F.

ARTÍCULO 13

1. El impuesto se gestiona a partir del padrón del mismo que se formará anualmente, y en el que constarán los nombres y domicilio fiscales de los sujetos pasivos obligados al pago, así como las bases y cuotas resultantes.

2. El padrón se aprobará por la Comisión Municipal de Gobierno y se expondrá al público por un plazo de quince días para que las personas contribuyentes afectadas puedan examinarlo y formular, en su caso, las reclamaciones que consideren oportunas.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

3. Ordenanza Fiskala Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga

Ordenanza Fiscal nº 3 Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica

14. ARTIKULUA

Zerga honen kuotak Udalak udal zergak banaka edo batera kobratzeko ezarritako ordainagirian edo ordainagirietan sartu ahal izango dira, eta udal administrazioak bankuko helbideratze sistema ezarri ahal izango du zerga kobratzeko.

VIII. AZKEN XEDAPENA

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga araupetu duen zerga ordenantza hau 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2024ko abenduaren 30ko 249 alean argitaratu eta gero, eta indarrean iraungo du harik eta hura aldarazi edo indargabetzea erabakitzen den arte.

ARTICULO 14

Las cuotas del tributo podrán incluirse en el recibo o recibos de exacciones que por el Ayuntamiento se establezcan para el cobro separado o conjunto de los tributos municipales, pudiendo la administración municipal establecer como sistema de pago, el de domiciliación bancaria.

VIII. DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica empezará a regir el día 1 de enero de 2025 una vez aprobada definitivamente y publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 249 de fecha 30 de diciembre de 2024 y seguirá en vigor hasta tanto se acuerde su modificación o derogación.